



gurasoen txoko 2008-09 Ikasturteko asetze inkestaren emaitzak

erreportailek Kasle kazetariak

irakasleen txoko Mertxe Irazuri agurra



jakintza ikastola

# agenda

## IRAILA

### LEHEN HEZKUNTZA

**2. maila:** Joxe Antonio Mujika aitona, kontu kontari umekin.

## URRIA

### LEHEN HEZKUNTZA

**3. maila:** Ordiziara irteerak, herria hobeto ezagutzeko.

**4. maila:** *D'elikatuz*-en egoitzan lanketa, "Goierri lantzen" programaren barnean.

**5. maila:** Donostiako Kutxaespaziora lan bisita.

**5. maila eta 6. mailan:** frontoian "Bide Hezkuntza"ko saio praktikoa.

### DBH

**1. maila:** Donostiako Kutxaespaziora lan bisita.

**3. maila eta 4. maila:** IKASPILOTA saioa Ordizian.

**1. , 2. eta 3. mailakoak:** Zineskola programaren barruan "Pijama marradunaz jantzitako mutikoa" filma.

**4. maila:** Zineskola programarekin "Gran Torino" filma.

## AZAROA

### LEHEN HEZKUNTZA

**1. maila:** Karrantzako "Karpin Abentura"-n dinosauroen museoari bisita.

**2. maila:** "D'Elikatuz"-en gidaritzapean Erdi Aroa ezagutzeko irteera.

**2. maila:** Xabierko gaztelura irteera.

**4. maila:** Segura eta Zeraina irteera, "Goierri lantzen" programaren barnean.

**6. maila:** ikasgaiarekin lotutako irteera Arantzazura eta Arrikutz kobetara.

### DBH

**3. maila:** Ikaspilota finala.

**1. maila, 2. maila eta 3. mailak:** Zineskola programarekin "La Clase" filma.

## ABENDUA

### LEHEN HEZKUNTZA

**1. maila:** Santimamiñeko kobazuloetara irteera.

**2. maila:** Bilboko Itsas Museora bidaia.

**Maila guztietan:** "Euskararen Eguna" ospakizuna.

**Maila guztietan:** Santo Tomas eguna.

**Maila guztietan:** Kidetze ekimenak.

**Maila guztietan:** Gabonetako kantak herrian zehar.

### DBH

**Maila guztietan:** Euskararen Eguna(abenduaren 3a)

## Emozio ezberdinak

Adimen emozionala eta heziketa emozionalari buruz sarri hitz egin eta eztabaidatzen dugu azkenaldian irakaskuntza eta beste eremuetan

Urteak bere barnean hartzen dituen lau urte sasoietan emozio ezberdinak pilatzen zaizkigu gure baitan. Batzutan uste izan dugu urtaro bakoitzak jartzen duela bere aletxo horretan. Nork ez du entzun edo esan, ni udaberriari zoriontsu izaten naiz, niri uda gustatzen zait edo udazkena bezalakorik ez dago, zoragarria da udazkena. Kontua da urte osoan bizilagun izaten ditugula beldurra, zoriona, poza, haserrea tristura etab bezalako emozioak.

Ziur gaude horrela gertatzen dela Jakintzako komunitatea osatzen dugunon artean ere. Urtea amaitzearekin batera gure desioa igorri nahi dizuegu eta haserrea eta tristura

bizilagun izan dituzten/ditugun guztiontzat bizilagun berriak ekar ditzala urte berriak.

Las cuatro estaciones del año bien podrían representar nuestro mundo sensitivo o emocional. Todos hemos escuchado o incluso pronunciado frases como "La primavera me hace sentirme bien, me produce alegría", "A mí me va el verano" o "No hay como un paisaje otoñal". Lo cierto es que durante todo el año convivimos con el temor, la felicidad, la alegría, el enfado, la tristeza y similares emociones que resultan compañeras de viaje.

Somos conscientes de que algo parecido le sucede a la comunidad que formamos Jakintza. Desde este espacio queremos transmitir nuestro deseo a todos los que han sufrido/hemos sufrido enfado y tristeza, el año nuevo nos depare nuevos compañeros de viaje.

## Egunero gauza berriak ikasten

Prestakuntza jarduera ugari burutu ditugu edo burutzen ari gara ikasturteko lehen hiruhilekoan. Adimen emozionala lantzen ari gara ikastolako irakasle asko eta asko.



Bizikidetzeta eta Gatazken ebazpena landu dugu ikastolako irakasle guztiok. Teknologia berriei lotutakoak ere ugari izan dira, besteak beste Ubunturen erabilpenari buruzkoak, IKT eta Txanela eta Ostadar proiektuko jarduerak. IKASYS proiektuari buruzkoak.

Beste maila batean, Urtxintxa, Txanela, ekintzailetasuna, elea-nitz proiektua, Ostadar proiektuari lotutako prestakuntza burutu dugu. Azkenik, kompetentzietan oinarritutako curriculum dela eta ikastolako irakasleria guztia egiten ari garen lanketa ere hortxe dugu.

# GURASOEN TXOKOA

2008-09 ikasturteari eta gurasoen asebetetzeari dagozkion datuak azalduko dizkizuegu oraingoan. Aurreko ikasturteetan bezala, HHko 5 urte, LH-ko 3. maila, 6.maila, DBH 4 eta DBHO2ko gurasoei pasa zitzaien inkesta. Orain guri dago-kigu bertan ageri diren emaitzak zuei azaltzea.

Datu orokorrei dagokionez, esan behar dizuegu 2008-09 ikasturteko emaitzak aurreko ikasturteetakoak baina hobekak izan direla. Esan dai-teke gurasoen asetzera maila altua dela.

Urtero egiten den moduan, iazko ikasturte amaieran sakon aztertu ziren emaitza guztiak eta zalan-zarik ez dugu, oraindik zer hobetua badugula eta horretan jarraitu behar dugula.

Grafikoa ulertzeko, bertan ikus dit-zakezue inkestan galdetu ziren 11 atal nagusi eta bakoitzari eman

diozuen puntuazioaren bataz beste-koa. (Balorazioa 1etik-10era izan zen). Grafikoa lau ikasturteetako emaitzak agertzen dira (2005-06, 2006-07, 2007-08 eta 2008-09)

Eskerrak eman nahi dizkizuegu jasotako erantzunarengatik, izan ere, oso baliagarria eta garrantzi-tua baita gurasoengandik jasotako informazioa edo iritzia.

	2006	2007	2008	2009
irakaskuntza - apendizaiia	7,94	7,93	7,7	8
tutoreekin harremanak	8,38	8,48	8,2	8,86
lana ebaluatzeko modua	7,81	7,95	7,7	8,04
orientazio zerbitzua	7,42	7,66	7,7	7,46
aktibitate estraeskolarrak	7,84	7,80	7,7	7,61
funtzionamendu orokorra	7,84	7,80	7,5	7,93
ikastola guraso komunikazioa	7,74	8,02	7,7	7,8
gestio organoen funtzionamend	7,91	7,74	7,6	7,8
autobus zerbitzua	7,97	7,78	7,6	8,7
jangela zerbitzua	8,69	8,64	8,7	8,12
haurtzaindegia	8,79	8,85	8,7	8,48

## 2008/2009 ikasturtea

### GALDERA IREKIAK

#### Haur Hezkuntzan:

- Gelako guraso ordezkaria eta beste gurasoen artean harremanak sistematizatzea
- Guraso eskola gehiago jartzea estimatuko nuke. Orain arte egin ditugunak oso interesgarriak izan dira eta sarriago izatea eskertuko genuke.


#### Lehen Hezkuntza:

- Con respecto a las normas de convivencia (respeto a los demás, a las cosas de los demás, etc...) no me parece que sea la educación adecuada, es algo importante para su futuro.
- Uste dugu arlo akademikoari garrantzia handia ematen zaiola eta heziketa integralari ez hainbeste.
- Ikasleen jarrera desegokien aurrean, guraso eta irakasleen artean zuzentzen saiatu behar dugula.

#### DBH eta DBHO

- Nos parece importante, que no hay que evaluar al alumno únicamente en el campo "intelectual", hay que conocer a la persona, valorar el aspecto "humano o físico" no sólo vale la calificación o buenas notas ya que eso no significa que sea buena persona.
- Bizikidetzeta eta adimen emozionala gehiago lantzea. (Tutoritzan)
- Creo que en el informe de nuestros hijos no estaría mal que nos informaran sobre el comportamiento o actitud de los mismos, en la jangela y en el autobús, ya que no dejan de ser parte de la dinámica educativa.
- Ez zaigu iruditzen irakasle guztiak irizpide berdinak erabiltzen dituztenik.

A finales del curso pasado se envió una encuesta a los padres del último nivel de Infantil, a los de 3º y 6º de Primaria y a los de 4º de ESO y Bachillerato para pulsar el grado de satisfacción con respecto al funcionamiento de la ikastola. En una primera valoración no podemos obviar que se ha producido un pequeño descenso en muchos de los apartados y que por ello, ya han sido incluidas una serie de medidas para mejorar nuestro trabajo y funcionamiento.



Junto con la representación de estos resultados en un gráfico, también se incluyen a continuación las aportaciones y opiniones personales sobre diversos temas.

Para una mejor interpretación del gráfico, en él aparecen los once apartados en los que se dividía la encuesta, así como la puntuación media otorgada a cada uno de ellos (de uno a diez) en los cuatro últimos años.

# Gure kazetariak

## Jende ospetsua ezagutzen

Ez da lehenengo aldia gure ikasleak kazetaritza lanean egindakoa goraipatu eta ezagutzera eman izan duguna.

Orain artekoan, eurek egindako lana izan dugu protagonista, lanaren atzean ikasle bakoitzaren meritua nabarmen geratzen zelako uste osoan.

Ale honetan, ordea, berorietako batzuk hartu ditugu protagonista: elkarrizketa guztiek sortzen dituzten gazi-gozoek jakin nahi genituelako, modu natural eta gordinean, eurei zuzenean galdetuta, alegia.

Denak asko izango zirelakoan, batzuei bakarrik galdetu diegu. Honako hauek ditugu erantzutera prestatu zaizkigunak: **Irunek Agirre, Lidia Araña, Garazi Usabiaga, Oihane Huesa eta Jon Cid.**



Irunek Agirre, Jon Cid, Garazi Usabiaga, Oihane Huesa eta Lidia Araña

### Zein elkarrizketatu zenuen?

**Irunek A:** *Bernardo Atxaga* goitizenpean idazten duen Jose Irazu.

**Lidia A:** *Iker Galartza* aktorea.

**Garazi U.:** *Agustin Mujika*, "Takolo" izanarekin gehiago ezagutua.

**Oihane H.:** *Sara Cozar*.

**Jon C.:** *Aintzane Ezenarro*, Aralar alderdiko bozeramailea Eusko Legebiltzarrean.

**Badakit bakoitza motibo desberdina izango zuela, baina, nola aukeratu zenuen zein elkarrizketatu: bere pertsonalitateagatik, zureganako hurbiltasunagatik, bere aktibitatearekin identifikatzen zarelako, zure idoloa delako...?**

**I. A.:** Betidanik sentitu izan dut Bernardo Atxagarenganako halako miarpen bat. Berak eginiko lanak irakurtzeak atsegina sortu izan dit txikitatik. Nik uste dut bere lanak, helduen prosan behintzat, ez direla nobela edo delakoa amaitzean amaitzen. Nire kasuan, egia, haratago joan dira, irakurri ondoren pentsatzera bultzatu bainaute, gogoeta batzuk egitera. Miarpen hori etxean kutsatu didatela esango nuke. Elkarrizketa gaia aukeratzekoan miarpenak eragin handia izan bazuen ere, bera elkarrizketatzeko aukera errealak zeudela jakiteak bultzatu ninduen gehien bat berarekin harremanetan jartzera.

**L. A:** Nik Iker Galartza aktorea Telebistan ikusi nuen, "Vaya Semanita"-n eta "Euskolega"-n. Aukeratzeko garaian, aktoreengan sentitu izan dudana miarpenak (harridurak, agian) bultzatu ninduen. Beti liluratu izan nau bera ez den beste pertsonalitate bat asumitzeko duten gaitasunak. Horratik joan nintzen.

**G. U.:** "Takolo" nire txikitako idoloa bat izan zen. Nire gelakideen elkarrizketak ikusita, zerbait ezberdina, alaia, dibertigarria... egin nahi nuen. Jakin nahi nuen jendaurreko alaitasun horren atzean (edo gainean) zein bizi den, nolako pertsona, bere benetakoa ezagutu...

**O. H.:** Gertuko norbait elkarrizketatu nahi nuen, eta Sara Ordizierra izanik ideia ona izango dela iruditu zitzaidan. Gainera, antzezlariei beti darie, horrelako xarma berezi bat. Iruditzen zait nor bere bizitzaz beldurak bizi izateko ahalmen hori estimagarria dela. Niri izugarriko inbidia ematen dit

**J. C.:** Nik Aintzane aktibitatea oso atsegin dut, eta hura ezagutzeko aukera paregabea iruditu zitzaidan. Ez pentsa politika zale sutsua naizenik, nahiz badakidan gure bizitza (bizi modua) zuzendu eta bideratzen digutena. Politikarien artean, ordea, gertukoena iruditzen

zait, libreagoa, bere alderdia txikia delako, eta ez duelako (horratixe, behar bada) beste partidu handietakoek dauzkaten lotura eta morrontzarik.

**Elkarrizketa egin aurrez, pertsonaiari buruz informazioa bildu behar izaten da. Ze bi detara jo zenuen horretarako?**

**Denek:** Interneten, jakina. Jende ospetsua denez, samurrena horra jotzea da. Gainera hori da Maitek ezartzen digun baldintza, pertsonaiak presentzia digitala izatea, datuak errazago eskuratzearren.

**J. C.:** Aintzane, politikaria izaki, aski ezaguna bada; prentsan, irrastian, telebistan, nonnahi agertzen baita. Denetara jo nuen nik.



Jon Cid

# Pertsonai handiak horren gertu sentitzeak zirrara so

**L. A.:** Nik, gainera, aurretik telebistan ikusita nuen Ikerrri egindako elkarrizketa bat, eta hainbat datu gogoratzen nituen.

**G. U.:** Nik aprobetxatu nuen "Takolo" nire gurasoen ezaguna izatea; beraiei galdetu nien.

**O. H.:** Internetez gainera antzerki bat ikustera ere joan nintzen, Sararen lana gertuagotik ezagutzeko.

**Informazio eskuratze horretan laguntzarik izango zenuen... Erraz jaso al zenituen datu guztiak?**

**G. U.:** Bai, ez nuen inolako zailtasunki eduki, gurasoengandik jaso bainuen informazioa.

**I. A.:** Informazio gehiena internet bidez lortu nuen lifestreaminga egiteko guneak baliatuz. Zoragarria da internetek ematen digun aukera. Izugarritzko eduki mordoak lor dezakezu klik soil batekin. Gero, garbiketa bat egin behar da, eta aukeraturakoa landu egin behar! Berez, hor hasten da benetako lana.



Irune Agirre

**L. A.:** Beno. interneten behar adina informazio aurkitu nuen elkarrizketa egiteko, ez nuen bestelako laguntzarik behar izan.

**O. H.:** Bai, gaur egun interneten informazioa oso erraz bilatzen baita.

**J. C.:** Bai, ez zen lan handia izan

**Datuak eskuan, asmoa buruan... elkarrizketatuak eragozpenik ipini al zizuen aukeratutako horrekin egoteko, edo dena nahi eta uste bezala irten zitzaizuen?**

**G. U.:** Egia esateko, nik uste nuen baina hobeto atera zen dena.



Garazi Usabiaga

**I. A.:** Bernardorekin harremanetan lehenengoz jarri nintzenetik hiru aste pasa ziren elkarrizketa finkatu genuen arte. Egia esateko, bere agenda kontuan izanik, ulertzekoa ere bada, jendo ospetsu hori hain baitabil lanperatua. Gainera, bere etxean hartu gintuen. Izugarri eskeretzen diot guretzako harturiko tarteak.

**L. A.:** Oso ondo joan zen dena, oso eroso sentiarazi ninduen Ikerrek, eta berak arazorik gabe erantzun zituen nire galdera guztiak. Berarekin kontaktatu nuen orduko elkarrizketa egitea onartu baitzuen.

**O. H.:** Nik ere oso erraz kontaktatu nuen Sararekin (korreo bitartez), eta ez zidan inolako eragozpenik jarri. Horrek, egia esan, lana asko errazten du.

**J. C.:** Aintzaneri eskaria bidali eta berehala jaso nuen baietza. Argi dago horrelako hitzorduei azkar erantzuten ohitua dagoena Ez zen oztoporik izan. Gainera, oso ongi tratatu ninduen hasieratik.

**Elkarrizketa bat planteatzen denean, derrigorrezkoa (kazetari profesionalen kasu) ez bada, bederen, aurreikuspen batetik abiatzen da: pertsonaiari buruzko iritzi bat daukazu, hori indartu egingo da (ala ez) jasotakoan informazioarekin... Elkarrizketak, azkenik, ze erremate eman dizu: aurrez zenekiena kon-**


**firmatu eta areagotu... uste ez zenuen beste eremu batera eraman zaitu... dezepzionatu... edo zuon arteko "kimika" sakondu, sendotu, indartu egin du?**

**I. A.:** Bernardori buruzikneukan irudia indartu egin zen. Zoragarri portatu zen eta esan daiteke, egun batez bada ere, maitemindu egin ninduela. Oso gizon aberatsa da kulturari dagokionez, jantzia. Metaforrek, zita testualek eta bere hizkuntz aberastasunak liluratu egin ninduten.

**L. A.:** Nik Iker pertsona atsegina zela pentsatu nuen, eta berdina pentsatzen jarraitzen dut. Hasieran banuen halako kezkatxo bat, ea bereizten jakingo ote nuen benetan edo antzezten ari ote zitekeen. Ez zen inolako zalantzarik egon, sintzeritate osoz tratatu baininduen. Berari buruzko inpresio ona areagotu egin da, beraz. Oso ondo pasatu nuen elkarrizketatzen bere jarrera jator horri esker.

**J. C.:** Ez nau inondik inora dezepzionatu. Aintzane oso pertsona suitsua eta azkarra da, hankak lurreak dituen. Beraz, aurretik berari buruz neukan iritzi positiboa indartu baino ez du egin.

**O. H.:** Esperientzia polita izan da, Sararen jarrera onak lagundu duelakoan nago. Aurretik nuen ikuspuntua hobetu egin dit, horren naturala, sinpatika eta laguntzeko duen joeragatik.



Oihana Huesa

**G. U.:** Nik uste dut "Takolo" eta bion arteko harremana sendotu egin

## Pertsonaiak ere pertsonak dira...

zela, gehienbat berak eskaini zidan konfidantzagatik. Jendeari momentu atseginak igarotzen laguntzen diolako, badirudi barne-kezkarik ez ote duen, edo gordetzen ongi asmatzen duela. Banuen hori jakiteko kuriositate punttua. Pertsonai jatorra eta atsegina da. Horrekin nire burua lotzarik gabe ikusi nuen, eta berarekiko irekitzea lortu nuen.

**Emaitzarekin pozik zaude, orduan (ez, derrigor, zuk espero zenuenarekin bat egiteagatik), ala?**

**I. A.:** Oso pozik nago lortutakoarekin. Elkarrizketak aberastu egin nauela esango nuke, zentzu askotan aberastu ere. Ez zait denbora askoan ahaztuko, ez elkarrizketako ueña, ez Bernardo.

**O. H.:** Ni ere bai, oso pozik. Ez nuke errepikatzeko inolako eragozpenik ipiniko (beno, ez al dit Maitek entzungo, lanean ipiniko bainau bestela)

**J. C.:** Bai, pentsatzen nuena baino hobea atera dela uste dut. Ez da, halere, dena nire meritua, eh!; Aintzanerena ere izango da.

**L. A.:** Bai, oso pozik nago, esperientzia bikaina izan da. Hain da atsegina gure Iker hori...!



Lidia Araña

**G. U.:** Bai, lehen adierazi dudak bezala, uste baino hobeto atera zitzaizgun. Jada, gainera, uste dut lehen baino lagunagoak garela, "Takolo" eta biok; zaila ere ez da eta!

Ba... zorionak, eta eskerrik asko. Jarraitu horrela saiatzen.



B. Atxaga

Erkarrizketak egin eta argitara ematen direnean, esan beharrik ez dago emaitzarekin geratzen garela. Geure ezaguerak erakutsiko dizkigun agian, lan bakoitzaren atzean dagoena, trebezia eta gauzak ongi egiteko gogoia. Beti geratzen zaigu, ordea, egindakoaren inguruan sortzen diren zailtasunak, eragozpenak, istripuak, ezustekoak... jakiteko ka bizia.

**Eva Argiñano** elkarrizketatu behar zuen **Leire Garmendiak**; laguntzaile **Sara Agirre** hartu zuen.

Hitzordua ezarrita, bere gairaian abiatu ziren biak, baina trena Andoainen geratu zen arazoak zirela tarteko. Hura apurua, jende ospetsuarekin hain baita zaila tartetxo libre bat harrapatzea...!

Evari deitu zioten berriro, eta ez zien inolako eragozpenik jarri hurrengo hitzordu baterako. Hori jende handiaren xumetasuna!

Ikustekoa da jende ospetsuak duen abegitasuna gure kazetariak bere lana eroso antzera burutu dezaten.

Iaz **Arantxa Otegi** otu zitzaion **Leire Olaberria** txirrindulariari elkarrizketa grabatzea. Hori Txinako Olinpiadetatik heldu berria zen. Biltokia Ordizia. Txirrindularia Legorretan bizi zenez, bizikletan etorriko zela agindu zion. Bai etorri ere. Grabatzerakoan, ordea, asmatu ez, edo beste arazoren batengatik, ez zuten grabatzerik izan.

Baina, hurrengo egunerako geratu, eta inolako eragozpenik ipini gabe, Leire Olaberriai, berriro, bizikletan etorri zitzaion.

Badira, halere, bere irudiarekin oso jekorrak diranak ere. Behin telebistako aurkezle (emakumezko) bati egin zioten elkarrizketa, eta ederki grabatu ere bera berak ez zuen, ordea, argitaratzen utzi. Agian profesionalak baino nahiko ez zuelako bere inguruan.

Antzekoa gertatu zitzaion **Martinez de Lece**rekin **Mikel Zurutuzà**, grabazioan zigarroa erretzen aritu zen, ez zuela horrela agertzerik nahi. Ay, ikeriak ematen dituen lanak!


Ospea beste erabatera lantzen duekin ere badugu gure artean. **Bernardo Atxaga** handia, adibidez. **Irene Agirre**ri, eta **Laura Zabaleri** bere eskerrera adierazteko liburu sinatuak oparitzea otu zitzaion. Hori modua irakurtzeko zaletasuna suspertzeko!

Batzutan, elkarrizketa amaitutakoan, nabarmen geratzen da pertsonai eta ikaslearen artean sortu berri den "kimi-ka". **Ihintza Mendizabal** ikasleak **Jon Maia** bertsolari ospetsuari egin zion elkarrizketa. Geroago, **Ihintzak** haren liburu baten iruzkina egin behar zuela eta laguntza eskatu zion. Gustura, eta abegitasun osoz lagundu zion **Jonek**. "Takolo" pailasoa elkarrizketan ondoren, **Garazi Usabiagak** eta biek umetatik gogoan zuen kanta abestuz amaitu zuten.

Ezustekorik ere eman izan da zenbait pertsonai ospetsuekin. Euskearen eta erderaren arteko lehia dela medio.

**Pedro Subijana** sukaldariari **Iñaki Esnal** joan zitzaion galdetegi osoa euskeraz prestatuta. Eta hara sorpresa Pedrok ez zekiela euskeraz! Hori gauza jakina zen, aspaldidanik, baina Iñakik ez uste...

Okerragoa gertatu zitzaion **Laura Zabaleri** munduan hain ezaguna den **Pedro (Miguel) Etxenike** zientzilariarekin. Hori, Isabakoa izanik, euskaldun petoa da, baina elkarrizketa erdaraz egitea nahi zuela. Gauzak nola diren: Pedrok (berea duen) euskeraz egiteko esfuertzotztoa ez egiteagatik, Laurak itzultzen aritu behar izan zuen.



Jon Maia

## Eta Maite ikuskari...

**Gure ikasleen kazetaritzaren eragilea Maite Goñi irakaslea dugu. Bere etengabeko hobekuntzan, ikasleengan giza harremanetarako gaitasuna areagotzearen aldera, ikasle bakoitzak pertsonai bati elkarriketa egitea proposatzen dio. Emaitzak agerikoak dira, eta meritua nabarmena, ikasleen lanak irakurtzea besterik ez baitago horretaz jabetzeko. Eta ikasleak pozik, aizu!**

**Irakaskuntzan eman duzuen berrikuntza hori zer da, premia edo kapritxoa?**

**Maitek:** Premia, premia! Betidanik pentsatu izan dut (ez naiz bakarra, eh), irakaskuntza gehiagi mugatu izan dela eduki kontzeptualetara, behin eta beriz errepikatzen ditugula ohiko moldeak (zaharkituxeak, jada), baita gure inguruan gauzak dezente aldatu direla ikusita ere, neu lekuko. Duela 5 urte, nire gaiarekin, Euskal Hizkuntza eta Literatura, nahiko etsita nengoen. DBHO 2ko ikasleekin ez nuen lortzen beraien euskarekiko jakin-mina piztea, inondik ere. Beraz, arazo hori abiapuntu, nire gaiaren planteamendua iraultzea erabaki nuen: irakaskuntza prozesua betiko parametroetatik ateratzea. Euskara eta teknologia berriak uztartzeko blog bat sortu, eta gaia beste modu batera bideratu: eurek sortuko zituzten eduki guztiak, eta sortutako oro (iritzi, artikulua, geure ariketak...) denon eskura ipiniko genuen.

**Eta ikaslearen nortasuna "pulitzeko" ideiarekin inspirazioa... amesgaiztoren batetik, agian?**

**Maitek:** Ikasleak inplikatu beharretik... eta anekdota batetik. ikasle bati beste ikasturte baten beste bati (artearen txirindularitzako munduko txapelketatik etorri berria zen hori) elkarriketa egin zion. Hark aitortu zidanean, ederki pasatzeaz gain, izugarri ikasi zuela dokumentazioa bilatzen, bideoa egiten, idazten... hor era-

bakia: hurrengo urtean, gelan landuko genuen.



**Maite Goñi**

**Lana nahitaezkoa al da?**

**Maitek:** Bai. Orain, guk proiektuak lan egiten dugu, eta ez dut lana baldineko azterketa baten aurreko orduetara mugatzea nahi. Saiatzen naiz ikasleak jabe daitezzen hiruhilekoan zeharreko lanak duela garrantzia, ikasturtean zeharrekoak, eta lanketa honekin gehiago inplikatzeko dira ebaluazioan zehar, ikasleek denbora gehiago eskaintzen diote gaiari. Lanketa bakoitzak bere balorazioa eta puntuazioa ditu eta, horrela, pixkanaka-pixkana joaten dira lortzen azken emaitza.

**Ez da ba denen gustukoa izango... Ze aurpegi ipintzen dizute agindua entzundakoan?**

**Maitek:** Elkarriketaren kasu zehatzean, orokorrean harrera oso ona izaten da, nahiz, beti dagoen bat edo beste trabak-edo jartzen dituen. Gainera, aurreko ikasturteko ikasleei entzuna dietenez ez ditu ikasleak ezustekoan harapatzen. Halere, onena elkarriketaren ondorengoa da: onartzen dute asko ikasi dutela, aberasgarria izan dela eta, orokorrean, oso gustura

geratzen dira egindako lanarekin, ezagututako pertsoniarekin, bizitako esperientziarekin... Gero, euren lana argitaratuta ikustean satisfazio handia jasotzen dute; eta, gainera, beste guztion inpikazioaz hobeto oharitzen dira. Ikasleak horretaz jabetzea oso garrantzitsua da.

**Lana agintzerakoan, ezartzen al diezu nolabaiteko muga edo baldintzarik?**

**Maitek:** Hautatu beharreko pertsonaiari dagokionez, lanketak ordenagailu bidez izan behar duenez, hau da, dokumentazioa sarean bilatu behar dutenez, presentzia digitala duen pertsonaia izatea ezinbestekoa dela adierazten diet. Horixe da muga bakarra.

**Aurrez prestatuko dituzu, ezta? Elkarriketaren antolaketa, egitura... animuak eta erreflexuak puri-purian eramateko, bederen.**

**Maitek:** Hori guztia elkarriketarekin hasi aurretik lantzen dugun webquestean jasota daukagu. Bertan, ondorengo guztia zehaztuta dago: eman beharreko urratsak (elkarriketa aurretik, elkarriketan zehar eta ondoren), egiturari buruzko azalpenak, galderen egokitasuna, ebaluazioa nolakoa izango den...

**Ze helburu joratu nahi izaten duzu, nagusiki?**

**Maitek:** Euskal Hizkuntza irakasgaiaren helburu propioez aparte (elkarriketa genero moduan ezagutu eta baloratzea, eta hizkuntzaren zuzentasuna lantzea), gizartearengana zabaltea; izuek eta konplexuek ezartzen dituzten mugak/hesiak gainditzea/suntsitzea; nor bere buruarenganako konfiantza indartzea; gizartearen puntako diren pertsonaienganako tartea laburtzea; horien guztien (ospea ospe) gertutasuna bertatik bertara sentitzea; egoera bat, bihurriena izanda ere, norberak kudeatzea, zuzentzea... Eta azkenik, seriotasunez egindako lanak emaitza onak ekartzen dituela.

Irune Agirre, Lidia Araña, Garazi Usabiaga, Oihane Huesa y Jon Cid nos cuentan su experiencia como periodistas. Entre los entrevistados contamos con el escritor Bernardo Atxaga, el actor Iker Galarza, el payaso "Takolo", la intérprete Sara Cozar y la portavoz de Aralar, Aintzane Ezenarro.

Cada joven defiende sus propios motivos a la hora de elegir a los protagonistas de su entrevista pero el denominador común es la admiración que les profesan.

Una vez recabada la información necesaria en torno a los personajes y acordadas las citas correspondientes, emprenden su tarea. Todos coinciden en la sencillez, el trato cordial y la disposición de los que hacen gala y ven así reforza-

da la imagen que de ellos ya tenían.

La artífice de esta enriquecedora experiencia no es otra que nuestra compañera Maite Goñi que, en su afán por la mejora constante, se embarca en esta aventura cuyos resultados a la vista están. Según Maite, todo surge a raíz de replantearse la asignatura de Euskara y así nace el blog Euskaljakintza.

El género de la entrevista exige una tarea de búsqueda de información, redacción y corrección de la lengua a la que dedican parte de la evaluación y que, en gran medida, los alumnos resuelven de manera exitosa. Además de los objetivos propios a la asignatura, lo que se pretende es acercar el trabajo realizado a la sociedad.

## Argitxoren egutegia

**Aspaldidanik**, laguntxo maitagarri bat dugu ikastolan. Ea asmatzen duzuen zein. Pista batzuk emango dizkizuet: iratxo bat da, kriselua du, euskeraz daki bakarrik, oparitxoak ekartzen dizkigu.... Asmatu al duzue? Horixe baietz ARGITXO da.

**Oraingo honetan**, kurtsio hasiera guztietan bezala, EGUTEGI bat ekarri digu haur eta andereño guztiei. Haurrei, etxera eramateko eta andereñoiei, gelan jartzeko.

**Ez badakizue ere**, esango dizuet, egutegian, zein eguna den borobiltzen dugula egunero, bai eskolan, baita etxean ere gurasoen laguntzarekin eta noiz den gure urtemuga ere bertan jartzen dugula, argazkian ikusten duzuen bezala.

**Horrez gain**, hilabete bakoitzak, abesti bat dakar bere jolasarekin. Gure andereñoaren laguntzarekin ikasten ditugu bai abestiak, baita jolasak ere. Primeran pasatzen dugu eta gainera ikastolatik kanpo euskaraz jolasteko aukera gehiago dugu honela.

Mila esker Argitxo egutegi honegatik!



Como cada comienzo de curso, Argitxo, nuestro duende preferido, nos ha regalado un bonito calendario en el que marcaremos nuestros cumpleaños y fechas importantes. También podremos divertirnos con los juegos y canciones que propone.

## Zerain-Segura

**Laugarren mailako** neska-mutilak Gipuzkoako eskualdeak ikasten ari zirela eta, geure eskualdea, Goierri, alegia, hobeto ezagutzeko asmotan txango bat prestatu zuten. Eguraldiak asko lagundu ez arren, autobusa hartu eta Zerainera joan ziren lehendabizi. Han herri museoa bisitatu zuten, bertan, herritarrek bildutako garai bateko tresnak ikusi zituzten. Horrela jakin zuten garai batean eskolak eta etxeak nolakoak ziren, arrantzan, ehizan, artzaintzan eta nekazaritzan nola egiten zuten, hitz batez, museo hau ikusita jabetu ziren gure arbasoak nola bizi izan ziren.

**Herriko ostatuan** dagoen "kartzela" ere bisitatu zuten, ez zen honi buruzko galderarik falta izan.

**Ondoren Zeraindik** Segurara jaitsi ziren oinez eta hemen "Ardixar" etxea ikusi zuten. Bertan erdi aroko eraikuntzak, ateak, harresiak ikustetik aparte, erdi aroan herritarrek nola bizi izan ziren jabetu ziren.

**Bukatzeko**, herrian zehar ibili ziren zenbait eraikuntza esanguratsu ikusiz. Gustura bueltatu ziren etxera. Nahiz eta aspaldi xamar egin txangoa, ez dute ez berehalakoan ahaztuko han ikusi eta ikasitakoa.



Los alumnos de 4º de Primaria realizaron una excursión por la comarca y visitaron Zerain y Segura. El paso por estas localidades les ayudó a transportarse a épocas lejanas como la Edad Media, experiencia que no olvidarán fácilmente.

## Hondarribian gozo-gozo

**Irabazi egin dugu!** Irabazi egin dugu? Aupa! Aupa! Horixe entzuten zen iazko ikasturte amaieran DBHko 1A gelan. Pozik ziren ikasleak, izan ere, saria ez da txantxetakoa.

**Bigarren aldia da**, iaz ere beste ikasle batzuekin Barriola lehiaketako sariaz gozatu baikenuen. Iaz DBH 2koak izan ziren bezala, aurten DBH 1ekoak izan dira bertan. Urriaren 3an, lehen-lehenik, Miramonen elkartu gintuzten sari banaketaren ekimen ofizialean. Bertan Euskara Arduradunen laudorioak jaso genituen eta aurrera jarraitzeko animuak indartu.

**Hoberena, orde**, Hondarribian zegoen, urriaren 13tik 16ra. Begirale gazte eta bizi batzuen esku jarri ginen. Hura zen hura ekimen zaparrada! Eskulanak, filma laburrak, surfa...eta batez ere gaueko ospakizunak eta gaupasak. Ikasleentzako zapore gozoko egonaldia.

**Etxeratzean beste** konturik ez zen entzuten. Berrito ere landu behar dugu gaia eta ea irabazten dugun!. Bai, bai irabazi egingo dugu!



Este año han sido los alumnos de 1º de ESO quienes han conseguido el premio Barriola y como recompensa han disfrutado de unos inolvidables días en Hondarribia. Durante su estancia han podido realizar divertidas actividades e incluso iniciarse en la práctica del surf.



## Haiek garaiak, haiek!

**Joxe Antonio Mujika Aiestaran** duela 71 urte jaio zen Ordiziako Oiangu Txiki baserrian. Bost senideetatik zaharrena eta mutil bakarra. Eskola berehala utzi, eta oso gazte hasi zen lanean, zazpi urterekin. Gazte denbora gogorra izan zuen ama 14 urte zituenean hil baitzitzaion. Lan asko egin behar izan du bere bizitzan. Egun jubilatuta dago, oso lasai eta zorientsu bizi da, eta baserrian lanxoak eginez.

**Umeekin kontu-kontari** aritzeko beta ere hartu du. Urriko hilabetean LH-ko 2. mailako haurrekin arratsalde pasa eginez, kontu kontari.

**Eskolan Ordizian** hasi zen. Klaseak, noski, gazteleraz. Maisuak esandakoa momentuan bete ezean... egurra. Eskolara joan aurretik, gainera, etxeetan esnea banatzen zuen.

**Zama lanetan** astoa zerabilten: ura etxeratzeko, garia errotatik ekartzeko... Lan honetan beti umeak. Behin, Joxe Antoniori, umetan, errotara joateko agindu zioten; baina nola joan ez zekien. Aitari galdetu, eta honek astoari jarraitzeko esan zion. Hala egin eta iritsi omen zen errotara.

**Honelako kontuak** eta beste askok, gaur egun benetako ipuinak diruditen arren, egiazkoak dira. Galdetu, bestela, zuen zaharrei, ea zer dioten! Haiek garaiak, haiek!



Joxe Antonio Mujika Aiestaran (71 años) acudió a la Ikastola para compartir con los alumnos de 2º de Primaria sus vivencias personales. Narró anécdotas y pasajes sobre su infancia y juventud que más bien parecían sacados de un cuento y consiguió acercar al presente un pasado no tan lejano.

## Mertxe Irazuri

Kaixo Mertxe laztana:

**Badira hilabete** batzuk, dozena erdi bat edo, Jakintzako lanak utzi eta bide berriak urratzera joan zinela. Zer moduz zabilta? Ondo espero dugu. Gu ere, ondo gabiltza, hementxe "tirriki-tarraka" eguneroko mar-txan.

**Lehenago batean**, zuri buruz aritu ginen hizketan. Zertan ote zinen? Nola ote zabilta?, guztion artean saiatu ginen imajinatzen zure bizitza. Nola imajinatu zintugun? Ba...begira: guk eginiko argazkian ZU, Altzagako kabi gozo eta xamur horren atarian azaltzen zara; patxadan, lanak ondo egin dituenaren patxada dauka-zu eta irrikaz, erronka berriei heltzeko irrikaz. Inguruan, zure senarra, semeak, bilobak...dituzu. Bi zakuto handi; bata atzean, eta bestea aurrean.

**Atzeko zakutoa**, ederra da, nahiz eta zertxobait ajatua eta saretua egon. Zer ez ote da horren barruan? Kariño usaia dario. Zenbat irri ote daude gordeta bertan? Zenbat goxatu? Zenbat istorio eta ipuin? Eta medizina? Ahulak indartzeko, okerrak zuzentzeko, tristeak alaitzeko...medizina. Eta jolasak? Milaka. Eta jokoak? Beste hainbeste. Eta muxuak? Auskalo zenbat!

**Aurreko zakutoa**, berriz, koloretsu eta mardula da, berri-berria dirudi. Koloretsua, zuen etxe aurreko talaiatik ikus daitekeen naturaren ederrari harrapatutako kolore guztiak dituelako berarekin. Mardula, zure amets guztiak bertan daudelako, eta zu irrikaz, guztiei heltzeko. Bai, patxadaz eta irrikaz zaude.



**Guk zer opa** dizugun? Ba, horixe. Ametsen zakutoa ez dadila inoiz hustu eta guztiak bete ditzazula.

**Nahi duzun** arte Mertxe. Jakintzako guraso, ikasle eta irakasleon izenean mila esker eman diguzun guztiarengatik, zakukada muxu eta zorte on!!

**Querida Mertxe:**

Desde estas líneas sólo queremos agradecerte todo lo que tu persona nos ha regalado y decirte que el nuevo universo que se rinde ante ti lo colmes de tus mejores sueños. Buena suerte y que lo disfrutes en compañía de todos los tuyos. Mil besos.

Landare gazte gaztekin nekatu gabe sekula tristea alaituz eta indartuz beti ahula guztiei erakutsiaz jatortasunan brujula. Orain badakigu ate berria ireki zaizula eta zer opa dizugun Mertxe laguna kalkula zure ametsen zorroa koloretsu ta mardula ez dadila inoiz hustu guztiak lor ditzazula eta esan gabe doa oso maite zaitugula.

## Bizikidetza proiektua gure ikastolan

Hirugarren ikasturtea dugu aurtengoarekin gure Bizikidetza Proiektua lantzen hasi ginela, beraz aurtengo ikasturtean, aurreko bitan egindakoa osatu eta amaiera behar diogu.

Lehen hiruhileko honetan hainbat jarduera burutu dira zentzu horretan, behar bada aipagarriena izan litezke azaroaren 24ean eta abenduaren 1ean egindako bilerak. Azaroaren 24ean Jakintza ikastolako Bizikidetza Taldea elkartu zen eta aurreko ikasturtean zehaztutako lehentasunetatik abiatuta Urteko Bizikidetza Plana zehazteko eta adostasuna lortzeko zirriborroa lantzen jardun zuen. Abenduaren 1ean berriz, landutako zirriborro hori Jakintza ikastolako guraso ordezkariari aurkeztu zitzaion, beraien iritzia eta ekarpenak jasotzeko prozesua irekiz.

Bestalde antzeko lanketa egin behar da gure ikasleekin, horretarako Lehen Hezkuntza, DBH eta DBHoko ikasle ordezkariarekin abenduko oporrak hartu baino lehen hainbat saio egingo dira.

Bilera horien ondotik eta oraindik amaitu gabe dagoen arren aurtengo Bizikidetza Plana, aurreratu genezake zereginik nagusien artean egongo direla ondoren-oak:



- Ikastolako Araudia berritzea eta eguneratzea, bertan txertatuz Ikasleen Eskubideak eta Betebeharren dekretua.

- Ikastola barruko zein kanpoko ekintzetan Jakintza ikastolako komunitatearen partaidetza eta komunikazioa areagotzea eta hobetzea.

- Ikasleen norbanako arreta sustatu.

El Plan de Convivencia de Jakintza ikastola continúa su andadura, iniciada ya, hace tres años. Durante este curso 2009/2010 y con la

participación de toda la comunidad escolar, podremos dar por finalizado y aprobado el Plan Anual de Convivencia de nuestro centro. La tarea será la siguiente:

- Renovar y actualizar el Reglamento Interno adaptando en el mismo el decreto sobre los Derechos y Obligaciones del alumnado.

- Potenciar y mejorar la participación y comunicación de la comunidad escolar de Jakintza en las actividades a realizar.

- Fomentar la atención personalizada del alumnado.

## Hauxe mami goxoa!!

5 urteko haurren geletan esnekiak lantzen ari ginenez, egin dugun jardueretako bat mamia egitea izan da. Hor doaz jarraitu genituen errezetaren pausoak:

- Hasieran esnea berotzen jarri genuen irakin arte.

- Ondoren, gelara eraman genuen epel puntua har zedin.

- Gero gatzagia bota.

- Azkenik, potetxotan hozten utzi genuen jateko prest egon arte.

Prestaketa lanak goizean eginik utzi genituzenez, arratsaldean mami goxo hura jateari ekin genion. Haur guztiak ez ziren probatzera animatu, beste batzuk berriz, errepikatu egin zuten. Esperientzia polita izan da eta dibertigarria.

Jadanik sabela beterik, buruari eragiteko txanda zen. Aurretik emandako pausoak gogoratuz, mamia egiteko beharrezkoa den errezeta osatu behar zuten haurrek. Fitxa polit baten bidez egiten da hori eta marrazki ederrak ditu gainera. Haurrek



ez zuten arazorik izan, mamia egiterakoan adi-adi eta interes handiz jarraitu baitzuten guztia.

Errezeta etxera eraman zutenez, espero dugu zuek, gurasoak, animatuko zarete la etxean ere postre goxo hau egiten eta dastatzen. Errezeta etxean ez duzenok, aurretik jarri ditugun pausoak ja-

rraitu eta ikusiko duzue zeinen mami ederra jango duzuen. ON EGIN!

El tema en torno a los derivados lácteos sirvió a los peques de cinco años para ver la elaboración de un tradicional postre como es la cuajada. ¡Eso sí! Sólo los más atrevidos se atrevieron a degustarla.

## Nola salbatu bizitza bat

Osakidetzarekin elkarlanean, 2008-09 ikasturtean, gure DBH4-ko ikasleek prestakuntza berezi bat egin zuten bihotz gelditzea edo infarto bat gertatzen denean, eman behar diren urratsen inguruan. Prestakuntza gure ikasleen gustukoa izan zela aipatu genuen bere garaian. Jaso beharreko ezagutzak jaso ondoren, oso gustura jardun zuten ikastolako aretoan egin beharreko ariketa praktikoak egiten. Ikastaroa amaitu zenean oso balorazio ona izan zuen irakasle eta ikasleen aldetik.

Urtebete pasa ondoren ikastaroaren bigarren fasea burutu behar dute gure ikasleek. Iaz DBH4n zeudenak, DBHO 1ean daude aurten eta iazko prestakuntzaren eraginkortasuna neurtu nahi da eta iazko ikasturtean burutu zuten pres-



takuntza dela eta buruan zer gordetzen duten jakin nahi da. Horretarako, bihotza gelditu edo infartoari buruzko galdeteka luze bat erantzun beharko dute.

El pasado año, los alumnos de 4º de ESO y con la colaboración de Osakidetza,

participaron en un curso sobre las medidas a tomar en caso de infarto o paro cardíaco. Este año se llevará a cabo la segunda fase del cursillo y estos jóvenes tendrán la oportunidad de demostrar, a través de una encuesta, el resultado de la formación recibida.

## Ikastolen Kooperatiba berrian sartzeko eskaera.

Abenduaren 15ean burutu zen Jakintza ikastolaren Urteko Batzarra. Arratsaldeko 19:00etan elkartu ginen asmo horrekin San Inazioko areto berrian.

Aurtengo batzarrean ohiko gaiez gain, gai berri bat ere bagenuen aztergai.

Behin baino gehiagotan esan dugun bezala, Euskal Herriko ikastolak gogoeta eta azterketa ugari egin dituzte azken urteetan eta fase bat amaitzen dela esan dezakegu orain.

Aspaldiko ametsa zen Euskal Herriko ikastola guztiak bilduko zituen erakunde berri bat sortzea. Azkenean ametsa gauzatu dela ikusi dugu nahiz eta hori gauzatzeko bidea luzea eta korapilatsua izan. Ikastolen erakunde berriak, Europako Kooperatiba Elkartearen forma hartu du juridikoki.

Esan dugun dugun bezala bidea luzea izan da eta nahiz eta fase bat amaitu, gelditzen dira konpondu beharreko beste gai batzuk ere. Momentuz, Nafarroako ikastola gehienak ez dira sartu erakunde berrian. Dena den, itxaropen osoa dago, denbora asko baino lehen Nafarroako ikastola denak erakunde berrian izango direla esateko.

Behin ikastolen erakunde berria sortu ondoren, ikastola bakoitzari dagokio erabakitzea sartu edo ez sartu erakunde berrian. Urte amaiera arteko epea dugu horretarako ikastolek. Dagoeneko ikastola gehienek hartu dute erabakia eta erakunde berriko partaide izatea eskatu dute.

Lehenago esan dugun bezala, abenduaren 15ean Jakintza ikastolak hartu zuen



bere erabakia eta Euskal Herriko Ikastolen Europako Kooperatiba berrian sartzeko eskaera egitea erabaki zuen.

Euskal Herriko Ikastolen Europako Kooperatiba Elkartearen aurtengo gestio planeko hiru atal nagusienak aipatuko ditugu:

**A.-** Ikastolen Hezkuntza proiektu komuna aplikatzeko, ebaluatzeko eta eguneratzeko bultzatzaile izan eta ikastola bakoitzaren laguntzaile izan bere berriazko hezkuntza proiektua diseinatzean eta garatzean.

**B.-** Ikastolen zerbitzu kolektiboen antolakuntzaren eta kudeaketaren bilakaeran eta antolakuntzan arduradun izatea.

**C.-** Ikastolen zerbitzu kolektiboak enpresa berrian bildu eta kooperatiba berria sortu.

Euskal Herriko Ikastolen Europako Kooperatiba berrian sartzeko eskaera egitea erabaki zen Abenduaren 15ean Jakintza ikastolak egin zuen urteko batzarrean.

El pasado 15 de diciembre se celebró la Junta Anual de Jakintza. En ella, además de los temas ordinarios, se trató sobre un tema polémico. La nueva institución de las Ikastolas, ha adoptado jurídicamente la estructura de Comunidad Cooperativa Europea. Una vez creada dicha institución, será cada Ikastola quien decida su ingreso en la misma. Hasta el momento son pocas las Ikastolas de Nafarroa las que se suman a este nuevo proyecto. Jakintza es una de las que ya ha solicitado su ingreso.



1970. urtean Mari Karmen Oiharbidek Iriarte sagardotegian ateratako argazkia

Altamira auzoa z/g  
tfno. 943 16 05 40  
faxes. 943 16 07 90  
20240 ORDIZIA  
ordizia@ikastola.net

